



ELKARGO OFIZIALEK ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENETAKO HONDAKINEN EKOIZPEN ETA KUDEAKETARI BURUZKO AMAIERAKO TXOSTENAK EGIAZTATZEKO JARRAIBIDEAK.

2012ko irailaren 3an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ekainaren 26ko 112/2012 Dekretua, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen.

Dekretu horren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera, *obra handietan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatze*ko, obraren zuzendaritza fakultatiboak sinaturiko txosten bat aurkeztu beharko du eraikuntza-hondakinen eta -materialen ekoizleak. Txosten hori dekretu honen III. eranskinean zehaztutako ereduari jarraikiz egin behar da, eta ingurumen-organoak akreditaturiko entitate independente batek egiaztatu behar du, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankor bakarrean ezartzen dena.

Artikulu horrek berak xedatzen du, halaber, EMAS sistemari (ingurumena kudeatzeko eta ikuskatzeko Europako Erkidegoko sistemari) atxikitako erakundeen erregistroan erregistratuta dauden erakundeek ez dutela egin beharko aurreko zenbakian adierazitako kanpo-egiaztapena.

Bestalde, xedapen iragankorrak xedatutakoaren arabera, *Dekretu honen 6. artikuluan ezarritako kudeaketako amaierako txostenak egiaztatuko dituen erakunde independenteen egiaztatze-sistema bat ez dagoen bitartean, dagozkion elkargo ofizialek egingo dute lan hori, salbu txosten horiek lurzoru poluituen kontuetan egiaztatutako entitateek egiten badituzte*.

Testuingurua halakoa izanik, urriaren 16ko 212/2012 Dekretua argitaratu zen, ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen duena. Dekretu horren bidez, aipatutako 6. artikulua aldatu zen, adierazteko ingurumen-lankidetzako erakunde batek egingo zuela aurrerantzean egiaztatze-lana.

Joan den 2013ko urriaren 1ean, irailaren 10eko 407/2013 Dekretua argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, urriaren 16ko 212/2012 Dekretuaren indarraldia aldi baterako eteten duena. Hortaz, aurreko egoerara itzuli gara; hau da, kudeaketari buruzko amaierako txostenak egiaztatzea elkargo ofizialen esku uzten zenekora.

Egiaztatze-lanen **XEDE** da, hain zuzen, egiaztatzea eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren III. eranskinean zehaztutako edukia beren baitan hartzen dituzten kudeaketari buruzko amaierako txostenek, bai eta edukia koherentea den ere hondakinak kudeatzeko azterketan ezarritako xedapenekin.

Elkargo ofizialek ez dituzte egiaztatuko lurzoria polui lezakeen jardueraren bat izan duen erakin bat eraistearekin zerikusia duten kudeaketari buruzko amaierako txostenak. Ingurumen-organoak erabakiko du txosten horiek egokiak diren, lurzoru poluituen alorrean dituen eskumenen esparruan.

Eraikuntza- eta eraispin-hondakinen kudeaketari buruzko ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren bidez arautu zen kudeaketari buruzko amaierako txostenak egiaztatzea elkargo ofizialei dagokiela, eta haiek duten egitekoa errazte aldera, beharrezkotzat jo da jarraibide hauek onartzea.

ERAKUNDE hauentzat dira aipatutako jarraibideak: obraren proiektua eta obraren amaiera ikus-onesteko eskumena duten elkargo ofizialentzat, bertako teknikariek sina ditzaten egiaztatu beharreko txostenak. Obra-tipologia oro aipatutako elkargo ofizialetan aurkez badaiteke ere, komeni da Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko 38/99 Legean xedatutako eraikuntza-tipologiaren araberako espezialitatearen printzipioa betetzea.

Kudeaketari buruzko amaierako txostenak egiaztatze-lanetarako **JARDUERA** hauek gauzatuko dira:

1. **Kudeaketari buruzko amaierako txostenak (KAT) egiaztatzeko eskaera eta baldintzak**

- Egiaztatze-txostenaren eskaera: obraren titularrak edo hondakina sortu duenak, fidantza bere gain hartzen duena den aldetik; edo bestela, haren izenean, kudeaketari buruzko amaierako txostena egin duen zuzendaritza fakultatiboak. (Egiaztatze-zerbitzuen faktura eskaera egin duenari igorriko dio elkargoak).
- Hondakina sortu eta daukan pertsona. Hondakina sortu duen edo daukan pertsonak EMAS erregistroan izena emana baldin badu, ez du egin behar egiaztatpena.
- Hondakina sortu duen pertsonaren izena / helbidea.
- Hondakina dauka(te)n pertsonaren edo pertsonen izena / helbidea.
- Txostena idatzi duen pertsona. Kudeaketari buruzko amaierako txostena idazteaz arduratu den zuzendaritza fakultatiboaren datu pertsonalak eta profesionalak eta/edo idazteaz arduratzen den zuzendaritza fakultatiboko teknikari eskudunarena.
- Hala badagokio, hondakinak kudeatzeko azterketan aipatutako proiektuaren ikus-oniritziaren zenbakia eta/edo elkargoaren espediente-zenbakia.
- Obretarako udal-lizentziaren zenbakia, udalak emandakoa.
- Udal-agintaritzan utzitako fidantzaren zenbatekoa.
- Hondakinen kudeaketari buruzko amaierako txostena.
- Hala badagokio, ikus-onetsitako obra amaierako ziurtagiriaren kopia, egilea obraren zuzendaritza fakultatiboa dela egiaztatzen duena. (Ez da beharrezkoa izango, elkargo berak ikus-onetsi badu obra amaierako ziurtagiria).
- Hondakinak kudeatzeko azterketa ikus-onetsia, beti.

2 Obraren kokapenari eta obra-motari buruzko datu orokorrak egiaztatzea

2.1. Kokapena.

- Kokapenaren datuak: posta-helbide osoa, lursail mugakideak eta UTM koordinatuak.
- Lursailaren azalera eta eraikitakoaren azalera.

2.2 Obra-mota. Txostenean jasotako obra-motaren deskripzio laburra. Informazio honek agertu behar du, gutxienez:

- Jarduera-mota: eraikuntza, eraispena, birgaitzea edo urbanizatzea.
- Egitura-mota: metalezkoa, hormigoizkoa, zurezkoa, nahastea (zehaztu).
- Solairu-kopurua, sotoak barne.
- Amiantoa duten materialak kendu behar izanez gero, martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan eskatzen den lan-plana zein enpresak gauzatu duen eta eskumena duen lan-agintaritzak hori onetsi izanaren egiaztageria.

2.3. Komeni da kudeaketari buruzko amaierako txostena egingo duen elkargo berberak ikus-onestea hondakinak kudeatzeko azterketa. Hala ez bada, hondakinak kudeatzeko azterketa ikus-onetsia helaraziko dio sustatzaileak kudeaketari buruzko amaierako txostenaren egiaztatze-txostena egitea eskatu dion elkargoari.

3) Datu kuantitatiboak egiaztatzea, dokumentazioaren koherentziari eta justifikazioari dagokionez

3.1 Hondakinak kudeatzeko azterketa ikus-onetsi duen elkargoa ez bada kudeaketari buruzko amaierako txostenaren egiaztatze-txostena egitea eskatu zaion elkargoa, egiaztatuko da hondakina sortu duenak erantsi diola egiaztatze-eskaera hondakinak kudeatzeko azterketa ikus-onetsiari.

3.2 Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketaren laburpen kuantitatiboa jasotzen duen taulako balioak egiaztatuko dira, 112/2012 Dekretuko III. eranskineko formatuaren arabera, eta identifikatzeko HEZ kodea gehitu dela egiaztatuko da beti.

Hondakinen kategoria adierazteko erabiltzen diren HEZ kodeak behar bezala esleitu direla bereziki egiaztatzea komeni da. Bereziki garrantzitsua da hondakinak ez esleitzea HEZ 170107 kodeari (hormigoia eta material zeramikoen hondakin garbien nahasteak), baldin eta, berez, HEZ 170904 kodean sartu behar badira; izan ere, kode horretan, inpropioen eta EEHen nahaste zikinak sartu behar dira, eta horiek balorizatzeko kasuistika zorrotzagoa dute eta arriskutsuagoak dira.

HEZ kodeetan justifikatutako kantitate hauen egiazkotasuna egiaztatu behar da: hondakinen guztizko kantitateak %75 egiten duenean eta adierazitako hondakin arriskutsuen kantitateak %100 egiten duenean.

3.3 Hondakinak kudeatzeko azterketan (HKA) adierazitako aurreikuspenak aztertu behar dira, bai eta aurreikuspen horiekiko izandako aldaketen justifikazioa ere.

3.4 Zehaztu egin behar da hondakinak obran bereizteko betebeharra zuen ala ez.

3.5 Egiaztatu egin behar da sortutako hondakinak baimendutako kudeatzaile baten bidez kudeatu direla. Horrezaz gain, egindako kudeaketa ebaluatuko da, helburu hauen arabera: prebentzioa, obran bertan erabiltzea, in situ balorizazioa, kanpoko balorizazioa, deuseztatzea.

3.6 Hondakinak jatorrian bertan behar bezala bereizi direla ziurtatzeko estrategia egokiak baliatu diren egiaztatuko da. Bereizketa hori egiteko hasiera batean espazio-arazoak izan dituzten lekuetakoak ere egiaztatuko dira; izan ere, egiaztatu behar da EEHak kudeatzeko planak idazteko eta ezartzeko IHOBEn eskuliburuan zehaztutako estrategiak, beteak beste, erabili dien.

3.7 Egindako kudeaketa justifikatzeko aurkeztu den dokumentua honako hauetakoren bat dela egiaztatuko da:

- Hondakinak kudeatzeko baimena duen pertsonaren onarpen-dokumentua eta kontrolerako zein jarraipenerako dokumentua, lurren eta arroken kasuan izan ezik.
- Betelanetarako lurren eta arroken kasuan:
 - i. Lur eta harriak betelan baimendu moduan entregatu izanaren frogagiria.
 - ii. Emate-agiria eta faktura.
- Obran bertan balorizatutako lur eta harrien kasuan:
 - o Zuzendaritza fakultatiboaren eta/edo hango teknikari eskudunaren zinpeko aitortpena.
- Beste obra batzuetan balorizatutako lur eta harrien kasuan:
 - i. Baimena duen kudeatzailearen kontrol- zein jarraipen-dokumentua
 - ii. Helburu-obraren proiektuaren laburpena, lur horien inportazioa zehazten duena.
- In situ balorizatutako EEHtatik datozen materialen kasuan:
 - i. Instalazioaren operadorea kudeatzaile baimendua delako baimenaren egiaztagiria.
 - ii. Obrako Zuzendaritza Fakultatiboaren zinpeko deklarazioa, bertan balorizatutako materialak erabili direla adierazten duena.
- Obran balorizatutako eta beste obra bati emandako materialen kasuan:
 - i. Instalazioaren operadorea kudeatzaile baimendua delako baimenaren egiaztagiria.
 - ii. Helburu-obraren proiektuaren laburpena, material horien erabilera erregistratzen duena.
 - iii. Kudeaketari buruzko amaierako txostena idazteaz arduratu den zuzendaritza fakultatiboaren eta/edo hango teknikari eskudunaren zinpeko aitortpena, material horiek eraginkortasunez erabili direla adierazten duena.
 - iv. Beste obraren lizentzia edo baimena.
- Instalazio industrialetan egiten diren jardueren kasuan, honako hauek egiaztatzen dituzten dokumentuak:
 - i. Produkzio-jarduera bateragarria dela handitzeko edo berritzeko obrekin,

- ii. eta Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren (ISO14001 ziurtagiria) bidez sortzen eta kudeatzen direla,
- iii. eta jardueraren ondorioz, obran sortutako hondakin-mota berbera sortzen duela (metalak, papera eta kartoia, ontziak, pintura- eta berniz-hondakinak, etab.).

Produktzio-hondakinak kudeatzeko instalazio horietan egokitutako instalazioak erabili ahal izango dira obran sortutako mota bereko zenbait EEH kudeatzeko. Halakoetan, obraren enpresa sustatzaileko gerenteak eta/edo ingurumen-arloko arduradunak zinpeko aitortpena egingo du, modu horretan kudeatutako hondakin-tipologiak eta -kantitateak adierazteko.

- Balorizatutako materialen salmenta-faktura.

4) Egiaztatze-txostena

Ez dira kudeaketari buruzko amaierako txostenen egiaztatze-txostenik egingo kasu hauetan: ez badu zuzendaritza fakultatiboak sinatu; jatorrizko obra behar bezala identifikatu ahal izateko datuak ez badira adierazten; egiaztatu ahal izateko datu gutxi edo ordenarik gabe aurkezten badira, paperean zein euskarri informatikoan aurkeztu.

Halakoetan, dokumentazioa itzuliko zaio sustatzaileari, behar bezala bete ditzan dokumentuak.

Egiaztatze-txostena egiteko kontuan hartuko da ea kudeaketari buruzko amaierako txostena bat datorren ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan jasotako xedepanekin. AZKEN BALORAZIOA adieraziko da bertan, udal-agintaritzak, arlo horretan dagozkion eskumenen esparruan, dekretu horretan xedatutako izapide-prozedurari ekin diezaion eta abala itzultzea ala ez erabaki dezan.

5) Tresna informatikoa

Datuen trazabilitatea egiten eta datuak kalkulatzeko laguntze aldera, bai eta horiek guztiak betetzeko ere, EEH-Aurrezten tresna erabiltzea komeni da; izan ere, egiaztatze kuantitatiboak egiten eta desadostasunak detektatzen laguntzen du.

Tresna hori IHOBEn webgunean dago eskuragarri, helbide honetan: <http://>

Informazioetarako bektorea EEH-Aurrezten aplikazioko fitxategia bada, fitxategi horren izena hau izango da:

Ww_ww_ww-xxxxxx-yyy-zzzzzz.xls

Azalpena:

- Espedientea elkargoan sartu zen eguna: Ww_ww_ww
- Hondakinaren sustatzailea/ sortzailea: Xxxxxxx
- Obraren lizentzia-zenbakia: Yyyyyy
- Udalaren izena euskaraz / gaztelaniaz: zzzzz

6) Egiaztatze-txostenen erregistroa

Kudeaketari buruzko amaierako txostenen erregistroa egingo du elkargoak. Aipatutako erregistroan informazio hau jasoko da:

- Sustatzailearen identitatea
- Obraren identitatea
- Obra zer udalerritan egin den
- EKK-Aurrezten fitxategia

7) Informazioa ingurumen-organoari bidaltzea

EAEko hondakin-kudeaketari buruzko inbentarioak egin ahal izateko eta EAEko eraikuntzako eta eraispeneke hondakinen sorrera-ratioen bilakaerari buruzko informazioa eduki ahal izateko, elkargoek urtero igorriko diote jarduerari buruzko erregistroaren kopia ingurumen-organoari.



EGIAZTATZE-TXOSTENAREN TXANTILIOIA

GAIA	Baiezkoa	Ezezkoa	Oharrak/Zehaztapenak
Obraren eta obrako eragileen identitatearen egiaztapena	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
1) Obraren eta obrako eragileen identitateari buruzko datuen egiaztapena			
1.1.- Egiaztatu beharreko kudeaketari buruzko amaierako txostena eragin duen obraren identitatea; hain zuzen, ea bat datorren honako hauekin: <ul style="list-style-type: none"> • Hondakinak kudeatzeko azterketan aipatutako proiektuaren ikus-oniritziaren zenbakiarekin • Obretarako udal-lizentziaren zenbakia, udalak emandakoa. 	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
1.2. – Obrari buruzko datu orokorrak.			
1.2.1. – Hondakina sortu eta daukan pertsona. Hondakina sortu duen edo daukan pertsonak EMAS erregistroan izena emana baldin badu, ez du egin beharko egiaztapena.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
– Hondakina sortu duen pertsonaren izena / helbidea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
– Hondakina dauka(te)n pertsonaren edo pertsonen izena / helbidea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	

<p>1.2.2. – Txostena idatzi duen pertsona.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Kudeaketari buruzko amaierako txostena idazteaz arduratu den zuzendaritza fakultatiboaren datu pertsonalak eta profesionalak. 	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
<p>2) Obraren datu orokorren egiaztapena, kokapenari eta obra-motari dagokionez</p>			
<p>2.1. Kokapena.</p>			
<ul style="list-style-type: none"> – Kokapenaren datuak: posta-helbide osoa, lursail mugakideak eta UTM koordinatuak. 	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
<ul style="list-style-type: none"> – Lursailaren azalera eta eraikitakoaren azalera. 	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
<p>2.2 Obra-mota. Txostenean jasotako obra-motaren deskribapen laburra. Informazio honek agertu behar du, gutxienez:</p>			
<ul style="list-style-type: none"> - Jarduera-mota: eraikuntza, eraispena, birgaitzea edo urbanizatzea. 	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
<ul style="list-style-type: none"> - Egitura-mota: metalezkoa, hormigoizkoa, zurezkoa, nahastea (zehaztu). 	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
<ul style="list-style-type: none"> - Solairu-kopurua, sotoak barne. 	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
<ul style="list-style-type: none"> - Amianto duten materialak kendu behar izanez gero, martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan eskatzen den lan-plana zein 	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	

<p>enpresak gauzatu duen eta eskumena duen lan-agintaritzak hori onetsi izanaren egiaztagiria.</p> <p>PROZESUAK AURRERA DARRAI</p>	<p>BAI</p>	<p>EZ</p>	<p>Egun honetan itzuli zitzaion sustatzaileari:</p>
<p>1.5 Badago EEH-Aurrezten fitxategia</p> <p>1.6 Egiaztatu ahal izateko moduan aurkeztu da informazioa</p>	<p>BAI</p> <p>BAI</p>	<p>EZ</p> <p>EZ</p>	<p>Zehaztu/izena zuzendu</p> <p>Sustatzaileari itzuli zitzaioneko eguna</p>
<p>2. Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketaren laburpen kuantitatiboa jasotzen duen taularen egiaztapena</p> <p>Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen kudeaketaren laburpen kuantitatiboa jasotzen duen taulako balioen eta balio horien koherentziaren egiaztapena, 112/2012 Dekretuko III. eranskineko formatuaren arabera, eta identifikatzeko beti HEZ kodea gehituta duen.</p> <p>Bereziki, honako hauen egiaztapena:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hondakinak kudeatzeko azterketan (HKA) adierazitako aurreikuspenak eta aurreikuspen horiekiko izandako aldaketen justifikazioa. - Hondakinak obran bereizteko betebeharra zuen ala ez. 	<p><input type="checkbox"/></p> <p><input type="checkbox"/></p>	<p><input type="checkbox"/></p> <p><input type="checkbox"/></p>	



<ul style="list-style-type: none"> – Hondakinen kategoria adierazteko erabiltzen diren HEZ kodeak behar bezala esleituta dauden, hondakinen nahasteei dagozkien HEZak bereziki (170107 eta 170904) 	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
<ul style="list-style-type: none"> – Helburu hauen arabera egindako kudeaketa. <ul style="list-style-type: none"> ○ Prebentzioa, obran bertan erabiltzea, in situ balorizazioa, kanpoko balorizazioa, deuseztatzea. 	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
<ul style="list-style-type: none"> – HKAn aurreikusitakoarekiko aldaketen justifikazioa, gora zein behera egindakoena. 	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
<ul style="list-style-type: none"> – HEZ kodeetan justifikatutako kantitate hauen egiazkotasunaren egiaztapena: hondakinen guztizko kantitateak %75 egiten duena eta adierazitako hondakin arriskutsuen kantitateak %100 egiten duena. 	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
<ul style="list-style-type: none"> – Justifikatzeko aurkeztutako dokumentuen tipologia 	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
<ul style="list-style-type: none"> – Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen laburpen kuantitatiboa jasotzen duen taula 	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	

gehitu da -EEH Aurrezten fitxategia Paperean	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
UDALARI EGINDAKO ERABAKI-PROPOSAMENA			
KAT desadostasunik gabe			
KAT justifikatutako desadostasunekin			
KAT justifikatu gabeko desadostasunekin			
KAT bat ez datozen justifikazioekin			
GOMENDATUTAKO AZKEN BALORAZIOA	fidantza itzultzea	Fidantza ez itzultzea	